

## BEZEROAK:

Gure produktuarekiko bi bezero mota bereizten ditugu. Alde batetik, enpresa handiak. Bezero mota hauekin gure produktua merkatura ateratzea eta bertan produktuak fama lortzea dugu helburu. Bestalde, enpresa famatu batek merkatura ateratzen badu gure lana, erosteko asmoa dutenek



konfiantza gehiago edukiko dute produktuan. Gu ikasle gazteak izanda, ez dugu multinazionalen indarra eta ondorioz, jendeak gugan ez du konfiantza bera izango. Bestetik, dendetara erostera doazen eguneroko bezeroak hartu ditugu kontuan. Azken finean, bezero hauek dira gure produktua erosiko dutenak. Horretarako hainbat galdeketa egin dizkiegu bezero ezberdinei. Hasteko, ikastolako adin ezberdinetako ikasleei egin dizkiegu. Ondoren, herriko teknologia dendara joan gara eta bertan galdeketa berdina egin diegu. Inkesta honen helburua, gure proiektua beste ikuspuntu batetik ikustea izan da. Bezeroek zer nolako abantaila eta desabantailak aurkitzen dizkioten gure produktuari edota nolako produktua erosiko lukete. Informazio honekin, gure ideia borobildu egin dugu bezeroen gustukoa bihurtu nahian.

